

- **Bezeroarekiko harremanak**

Bezero berriak erakartzeko, festa eta ekitaldietan aurkezpenak egingo ditugu gure zerbitzua zabaltzeko. Bertan, zerbitzuaren abantailak azalduko dira: segurtasuna, kostu txikia, gaueko ordutegiak... Baita ere bideo batzuk jarriko ditugu gazteen esperientzia partekatzen. Ekitaldi eta aurkezpenaren bukaeran, inkesta bat pasako dugu emailen bidez beraien proposamenak kontuan izateko eta bezero berriak erakartzeko. Inkesta hori betetzen dutenei hainbat puntu banatuko zaizkie. 5 puntu lortzerakoan bidai bat doain irabaziko dute. Baita ere unibertsitateetan eta gazte elkartetan promozioak eta publizitateak egingo ditugu, urte horietan festan asko ateratzen direlako, eta hasierako deskontua aurkeztuko diegu gure eskaintzak jakiteko. Zerbitzua lehen aldiz erabiltzen dutenentzako eskaintza berezia aurkeztuko da. Bezeroak mantentzeko, iritzia jasotzeko aukera emango diegu aplikazioaren bitartez eta ohiko bezeroei sari eta puntuak banatuko dizkiegu. Horrela puntuak batzen joango dira eta deskontu eta eskaintza asko edukiko dituzte. Azkenik, bezeroentzako arreta pertsonalizatua eskainiko diegu eta beraien beharretara moldatuko gara, eta erantzun azkarra eta eraginkorra ematen saiatuko gara.